

Europako Batzordeak hainbat neurri hartu ditu, elikakatean osasuneko eta segurtasuneko arauen aplikazioa indartze aldera. Elikagaien segurtasuna ezinbestekoa da kontsumitzaileen konfiantza eta elikagaien ekoizpenaren iraunkortasuna bermatzeko.

Neurri sorta horrek arriskueta oinarrituago dagoen ikuspuntua du, modernizatua eta sinplifikatua da osasuna babesteko. Aldi berean, kontrolerako tresna eraginkorragoak eskaintzen ditu, elikakatearen funtzionamendua erregulatzen duten arauen aplikazio eraginkorra bermatzeko.

LEGERIA HOBETZEA ELIKAGAIEN SEGURTASUNA HANDITZEKO

Europako Batzordeak (EB) aurrekaririk gabeko hainbat neurri proposatu ditu Europan nekazaritzako elikagaien katea modernizatu, sinplifikatu eta indartzeko.

Uneko Europako legeriaren aldaketa sinplifikazioaren eta araudi hobeago baten aldeko deiaren ondorio da, eragileentzat administrazio-karga murrizteko eta esparru arautzailea sinplifikatzeko.

Arreta berezia jarri da legeria horrek ETEetan eta mikroenpresetan duen eraginaren inguruan, legeriaren elementu garestienetatik eta zailenetatik salbuetsita geratzen baitira.

Elikakateari buruzko EBko legeriaren uneko korpusak ia hirurogeita hamar legegintza-egintza jasotzen ditu. Onartutako erreforma multzoak bostera murriztuko ditu eta elikadura-entresen nekazari, abeltzain eta ustiatzaileentzako (ekoizleak, eraldatzaileak eta banatzaileak) prozesu eta prozeduren burokrazia ere murriztuko du, euren lanbidea errazte aldera.

Erreforma bost legegintza-egintzara murriztuko du elikakateari buruzko EBko legegintzaren uneko korpusa, gaur egun ia hirurogeita hamar legegintzako egintza dituen.

ERREFORMAK PROPOSATZEN DITUEN ALDAKETA NAGUSIAK

Europako legeriaren erreforma lau arlo nagusitan aldaketak egitean datza:

- ✓ **Animalien osasuna**
- ✓ **Fito-osasuna**
- ✓ **Landare-ugalketaren materialak**
- ✓ **Kontrol ofizialak**

Gainera, EBk proposamen gehigarri bat garatu nahi du, gastua kudeatzeko **finantza-esparru erkidearen** sorreran oinarrituta.

Helburua uneko finantza-xedapenak modernizatzea da, esparru horretan aplikatutako sektoreko tresna eta programen funtzionamendua hobetze aldera, EBko finantziarioaren lehentasunei benetako balio gehigarria emanda. Lehentasun horiek hauexek dira:

- ✓ EBk finantzatutako neurrien aplikazioa babestea
- ✓ Egindako ekintzak errentagarriak direla bermatzea
- ✓ Estatu kideentzat beharrezkoa ez den administrazio-karga saihestea

EBko beste erakunde batzuek, hala nola Europako Parlamentuak eta Kontseiluak, Batzordearen neurri sorta aztertu eta horren inguruko jarrera adieraziko dute, hala dagokionean.

Fase horretan, kalkulatu da neurri sortaren **indarraldia 2016an hasiko dela.**

ANIMALIEN OSASUNA

Lege sorta berria EBn animalien osasuna arautuko duen legegintzako dokumentu bakarrean oinarrituko da, "hobe aurrea hartzea, sendatzea baino" printzipioan oinarrituta.

Horren helburua da estandarrak hobetzea eta sistema erkidea eskaintzea gaixotasunen detekzioa eta kontrola hobetzeko, eta osasunerako eta elikagaien zein pentsuen segurtasunerako arriskuei modu koordinatuan aurre egiteko.

Sistema hobetu horrek, identifikazio- eta erregistro-arauekin batera, aukera emango die gure elikakatea babesten esku hartzen duten pertsoneri, hala nola, nekazari eta albitariei, azkar erreakzionatzeko eta gaixotasunen hedapena murrizteko, baita abereetan eta kontsumitzaileengan sortutako eragina txikitzeko ere.

Gainera, EBn esku hartzea eskatzen duten gaixotasunen kategorizazioa eta/edo lehentasuna gaineratzen du.



Halaber, behar besteko malgutasuna emango da, animalien osasun-neurriak establezimenduaren tamaina eta mota ezberdinetara egokitzeko (adibidez, enpresa txiki eta ertainetara), tokiko egoera ezberdinetara egokitzeko, etab.

- [Animalien osasunari buruzko araudiaren zirriborroa](#)

FITO-OSASUNA

EBko laborantzaren balioa urteko 205 bilioi ingurukoa da. Landareen osasunaren kontrolerako uneko erregimenak ematen duen babesik gabe, sektore horrek kalte ekonomiko larriak pairatuko lituzke.

Izurrite-espezie berrien agerpena areagotu egin da merkataritzaren globalizazioaren eta aldaketa klimatikoaren ondorioz. Horrela bada, Europako nekazaritza, basoak eta ondare naturala arriskuan jarri dira.

EBn izurrite berriak sar ez daitezten eta nekazariak zein basoko sektorea babeste aldera, Batzordeak uneko fito-osasuneko araubidea hobetzea proposatu du.



Zehazki, arrisku gehien duen merkataritza-kontrola azpimarratuko da, bereziki hirugarren lurraldeetatik datorrena, eta barne-merkatuan eriteko materialaren trazabilitatean hobekuntza bat ezartzea sustatuko da.

Era berean, araudi berriak hauek gaineratzen ditu: zaintza handiagoa eta izurrite-espezie berrien agerraldien erradikazio goiztiarra, eta konpentsazio ekonomikoa izurrite horietatik sortutako koarentenak pairatu dituzten ekoizleentzat.

- [Fito-osasunari buruzko araudiaren zirriborroa](#)

LANDARE UGALKETARAKO MATERIALAK (HAZIAK BARNE)

Hazien munduko esportazioen balioaren % 60 EBtik dator.

Lege sorta berriak arau sinplifikatu eta malguagoak ematen ditu haziak eta landare-ugalketarako bestelako materialak merkaturatzeko, Europako uzta eta basoen produktibitatea, moldagarritasuna eta aniztasuna bermatzeko helburuarekin eta, horrela bada, horien merkaturatzea ere errazteko.

Material ezberdinen eskuragarritasun handia badago eta testetan baldintzak hobetzen badira, errazagoa izango da bioaniztasuna babestea eta haziak hobetzea, sistema nekazaritza iraunkorrago baterantz zuzenduta.

Bestalde, lorategi pribatuak hazien erabilerak arau sorta honetan arautu gabe jarraituko du.

Azkenik, arau horiek indarrean sartzean, mikroenpresetarako administrazio-karga murriztuko dela aurreikusita dago: edozein material mota merkaturatu ahal izango dute, «merkatu-zokoko material» gisa, inolako mugarik gabe.

- [Landare-ugalketako materialei buruzko araudiaren zirriborroa](#)

KONTROL OFIZIALAK

Batzordeak aitortu du indartu egin behar direla estatu kideetako agintaritza eskudunek lurraren gaineko EBko legeria betetzen dela kontrolatzeko dituzten tresnak (kontrol, ikuskapen eta proben bidez).



Duela gutxiko elikagaien inguruko iskanbilek (zaldi-haragiaren iruzurra, besteak beste) frogatu izan dute, berriro ere, ekintza eraginkorragoa behar dela agintaritza eskudunen eskutik, kontsumitzaileak eta eragileak katearen arauak urratzearen ondorioz sor daitezkeen arriskuen aurrean babesteko (baita zentzu ekonomikoan ere).

Arau berriek arriskuan oinarrituago dagoen ikuspuntua jarraitzen dute. Horrela bada, agintaritza eskudunek garrantzia handieneko gaietan baliabideak egoki ditzakete.

Kontrol horien aplikazio eraginkorra finantzatzeko kuoten uneko sistema, kate guztian zehar dagoen sistema iraunkor baten barnean, une honetan dirua biltzen ez duten kateko beste sektore batzuetara hedatuko da.

Bestalde, mikroenpresak komisio horietatik salbuetsita egongo dira, baina ez kontroletatik, euren lehiakortasunean ez eragiteko.

Era berean, estatu kideei eskatuko zaie kontrolerako nazio mailako planetan guztiz barnera ditzaten iruzurraren aurkako kontrolak. Horrela, bermatu egingo da zigor ekonomikoak, kasu horietan, egiazko disuasio-kopuruetan finkatzen direla.

- [Kontrol ofizialei buruzko araudiaren zirriborroa](#)

ONDORIOAK

- Neurri sorta horrek arriskuetan oinarrituago dagoen ikuspuntua du, modernizatua eta sinplifikatua da osasuna babesteko eta, aldi berean, kontrolerako tresna eraginkorragoak eskaintzen ditu, elikakatearen funtzionamendua arautzen duten arauen aplikazio eraginkorra bermatzeko.
- Legeria sinplifikatu da, eragileentzako administrazio-karga murrizteko eta esparru arautzailea sinplifikatzeko. Arreta berezia jarri da legeria horrek ETEetan eta mikroenpresetan duen eraginaren inguruan, legeriaren elementu garestienetatik eta zailenetatik salbuetsita geratzen baitira.
- Onartutako erreforma multzoak bostera murriztu ditu elikakateari buruzko EBko uneko legeriaren ia hirurogeita hamar legegintza-egintzak.

**LOTURA INTERESGARRIAK**

- [AESAN. Europako Batzordeak Madrilan aurkeztu du nekazaritzako elikakatea modernizatu, sinplifikatu eta indartzeko neurri sorta](#)
- [Animal and Plant Health Package: Smarter rules for safer food](#)
- [Frequently asked questions](#)